

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko martxoaren 12a / 100. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorlora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Ekitaldi ugari egingo dituzte San Martin eskolakoek martxoan

UBANE MADERA

Hil honetarako ekitaldi ugari prestatu dituzte San Martin eskolakoek. Besteak beste, Zuhaitz Eguna ospatuko dute datorren martxoaren 18an. Eta martxoaren 26an, Ikaspilota izeneko ekimenean parte hartuko dute, bestelako eskoletako umekin batera.

Martxoan, astero-astero izango dute ezohiko ekitaldiren bat eskolako umek. Hasteko, atzo, eguna, Gasteizen izan ziren. Teatro Paraiso taldearen *Klaus Handia* izeneko antzezlan ikusi zuten, Etxepare aretoan.

### ZUHAITZ EGUNA

Bestalde, datorren egunean, martxoaren 18an, Zuhaitz Eguna ospatuko dute. Goizean, zuhaitzak landatuko dituzte, Kurtzetan. 09:30ean aterako dira autobusean eskolatik Kurtzetara. 3. mailatik hasi eta 6. mailara artekoek egingo dute lan hori. Eta gero, arratsaldean, Naturarekin lotutako *La Selva Esmeralda* izeneko filma ikusiko dute.

Bestalde, Haur Hezkuntza-koek eta 1. eta 2. mailakoek ere ospatuko dute Zuhaitz Eguna. Kasu horretan, herriko lorezain Joxe Orunarekin joango dira



ARTXIBOA

laz bezala, aurten ere Kurtzetan sartuko dituzte zuhaitzak.

Bañera parkeko zuhaitzak ikustera, eta zelan zaintzen dituzten ikastera. Era berean, lore haziak ereingo dituzte herriko lorategi baten.

### IKASPILOTA

Eta martxoko ekitaldiekin bukatzeko, 26an, Ikaspilota izeneko ekimenean parte hartuko dute eskolakoek. Legutianoko, Izarrako eta Murgiako eskoletako

umekin ibiliko dira. Hala, goizez pilotan jardungo dute; hainbat modutan praktikatu dute kirol hori: eskuz, zesta puntan... Horrez gainera, profesionalen partidu bat ikusiko dute, apustuak eta eginez.

Eta arratsaldean, lau eskolen artean bertsogintzako, kantagintzako eta antzerkigintzako saio bereziak egingo dituzte, kultura etxean.

## Saharar umeak Aramaiora ekartzeko aukera

UBANE MADERA

Errefuxiatuta bizi diren zenbait ume saharar Aramaiora ekartzeko egitasmoan parte hartuko du Udalak. Asmoa da udan ekartzea ume horiek. Martxoaren 29a baino lehen eman beharra dago izena.

Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzak hala eskatuta, Aramaioko Udalak Oporrak Bakean izeneko egitasmoan parte hartuko du aurten. Egitasmoaren helburua zera da: Tindoufeko kanpaleketan errefuxiatuta bizi diren zenbait ume Aramaiora ekartzea, uztailaren eta abuztuaren artean egon daite-

zen. Hain zuzen ere, uztailaren 6tik irailaren 6ra bitartean izango dira Euskal Herrian.

### ETXE BILA

Hala, orain gauza da ume horiek hartzeko familiak aurkitzea. Intereza duenak udal bulegoetara joan beharko du izena ematera datorren martxoaren 29a baino lehen. Besteak beste, familia horrek 471 euro ordaindu beharko ditu umea ekartzeko. Diru hori umeen eta begiraleen hegazkin txartelak ordaintzeko eta bestelako gastuak ordaintzeko erabiliko dute.

Jaurilaritzak abiarazi du umeak ekartzeko ekimena. Guztira, 450 ume ekarri nahi dituzte.

## Aramaioko Udalaren kontra bi errekurtsio ipini dituzte

U.M.

**Gobernuko ordezkari Carlos Urquijok hala eskatuta, Estatuko abokatuak bi errekurtsio jarri ditu Aramaioko Udalaren kontra. Udalean, berriz, oraindik ez dute horren gaineko ezer jaso.**


Aramaioko udalbatzarrek 2003ko azaroaren 19an hartutako erabaki baten kontrakoa da errekurtsioetako bat. Hain zuzen ere, *Berria* egunkariaren akzio bat erostea erabaki zuten zinegotziek, bai eta egunkari horri 500 euroko dirulaguntza ematea ere. Errekurtsioak dio udal baten konpetentziak

gainditu egiten dituela ekintza horrek. Bigarren errekurtsioan, berriz, euskal presoan aldeko partikarta bat garraiatzea leporatzen diote Udalari. EFERen informazioaren arabera, 2003ko uztailaren 22ko udalbatzarrean, *Euskal Presoak Euskal Herrira* zioen partikarta baten garraioaren gaineko puntu bat landu zuten.

Aramaioko Udaleko ordezkariak, berriz, adierazi digute ez dutela errekurtsioen gaineko inportazio berririk. Komunikabideen bitartez berri izan dutela, baina oraindik ez dutela ezer jaso. Hala, errekurtsioak esku artean izan arte ez dutela beste ezer adieraziko gaituzte neratu digute.

## Aldaketak udaletxean

Udaletxea egokitzeko lanak direla eta zenbait aldaketa ikusiko ditugu datozen hilabeteotan. Besteak beste, joan den astelehenez geroztik (hilak 8), udaletxeko langile guztiak osoko bilkuren aretoan dabilta jardunean. Jakinarazi diguten, sei hilabetez egon beharko dute horrela; hortaz, irailera arte-edo. Herriarrek ere osoko bilkuren aretoan joan beharko dute edozer behar dutela ere. Aurreikuspenen arabera, datorren astelehenean, martxoaren 15ean, hasiko dira lanak egiten.



## LABUR

### Jaietako batzordea osatzeko herritar dezente dagoela gertu adierazi digute

Udalekoak pozik daude Jai batzordean parte hartzeko deialdiak izandako erantzunarekin. Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digunez, herritar dezente agertu zen batzarrerara. Batez ere, jaietako deialdiaren ondorioz. Eta gainera, interes handia erakutsi zutela. Hala, jaietako egun berru beste batzar bat egitea pentsatu dute. Herriarrek proposamenak jasoko dituzte orduan. Hain zuzen ere, presa handia duten ekitaldiak gaueko kontzertuak dira; hortaz, haiek lotzea ahalginduko direla gaineratu zuen alkateak.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

### OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kirodegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

## OHARRAK

### BAÑERAREN EMAITZAK

Neskek atsedean izan zuten joan den astean. Eta mutilek 9-3 irabazi zioten Kostalera taldeari. Asteburuari begira, berriz, bihar, zapatua, neskek etxean dute partidua, Fumikomiren kontra, 11:00etan. Eta mutilek Jesus Obreroren kontra jokatuko dute, kanpoan, 12:00etan.

### BARIKUKO ZINEMA

R. Attenborough zuzendararen *Gandhi* filma emango dute kultura etxean.

### DOMEKAKO ZINEMA

Charles Chaplin-en *Luces de la Ciudad* filma emango dute. Pelikula mutua da eta zuri-beltzean dago.

### KZGUNAREN ORDUTEGIA

16:00etatik 20:00etara zabalduko dute martxoan.



ARTXIBOA

Besteak beste, Manex Agirrek eta Iker Agirrek bertsoan egingo dute asteburuan.

## Bertsolari txapelketako bigarren kanporaketa

UBANE MADERA

Iker Agirrek ezin izan zuen parte hartu joan den asteko kanporaketan, gaixorik egon zen-eta. Hala, txanda aldatu egin diote eta bihar, zapatua jokatuko du kanporaketa, Andere Arriolabengoarekin batera. Bestalde, gaur, Manex Agirrek, Izar Mendigurenek eta Oihane Pereak parte hartuko dute ekitaldian. Berriz, Iña-

Iluntzean izango da Anbotoko gaurko (barikua) ekitaldia, 20:30ean hasita. Arabako zenbait bertsolari gaztek bertsoaioa eskainiko dute. Hala, Manex Agirrekin batera, Oihane Agirrek, Izar Mendigurenek eta Oihane Pereak parte hartuko dute ekitaldian. Berriz, Iña-

ki Viñaspre ibilko da gai jartzaille lanak egiten.

### ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Bestalde, joan den zapatuan jokatuko zuten Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo kanporaketa. Iker Agirrek parte hartu behar zuen, baina, gaixorik zegoen eta etxean geratu behar izan zuen. Hala, antolatzaileek txanda aldatu diote, eta bihar jokatuko du kanporaketa, Andere Arriolabengoarekin batera. Saioa Agurainen izango da, erakusketa aretoan. 20:00etan hasiko da. Honakoek jardungo dute: Irati Andak, Iker Ibarrolak, Alberto Martinezek, Irati Mendigurenek, Andere Arriolabengoak, Markel Bekaresek, Serpio Lopezek, Iosu Ormaetxeak, Iker Agirrek eta Iraia Sasietak.

## Elkarri birritan izan da sinadurak batzen herrian

UBANE MADERA

Elkarrik lortu du elkarrizketa foroaren aldeko 100.000 sinadurak batzea. Aramaion birritan izan dira, baina eguraldiak ez die batere lagundu. Hala ere, Elkarriko kide Jose Ramon Elortzak jakinarazi digunez, ia 90 aramaioarrek sinatu dute Elkarriren eskaera.

Joan den asteko eguraldi kaskarrak eraginda, Elkarriko kideak egubakoitzean, hilak 5, berriro izan ziren Aramaion, sinadurak batzen. Baina, beste behin egu-

raldia ez zuten lagun izan, eta uste baino herritar gutxiagoren sinadurak batu zituzten. Ia, 90, Elkarriko kide Jose Ramon Elortzak adierazi digunez. Hori bai, esan digu sinatzera joan zirenek bazutela Elkarriren ekimenaren berri, eta hori inguruko komunikabideei esker lortu dela. Kontuak kontu, oro har, Elkarrik lortu ditu aurreikusitako 100.000 sinadurak. Geurean, 1.500 lortzea aurreikusi zuten, eta 3.245 lortu dituzte. Orain, sinadura horiekin alderdi askoren arteko elkarrizketa foroa sortzeko eskaera eskubidea egingo dute Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Barikuan izan ziren Elkarriko kideak, Bizente Goikoetxea plazan.

## EAJk eta hAMAlauk euren asmoen berri eman dute

UBANE MADERA

Zarata larregi barik joan da hauteskunde kanpaina Aramaion. EAJkoek joan den eguenean, hilak 4, izan zuten ekitaldia. Besteak beste, Joseba Egibar izan zen Aramaion. hAMAlauk, berriz, etxe etxe banatu du baliogabe botoa eta zenbait salaketa.

Kultura etxean izan zen Joseba Egibar joan den astean. Besteak beste, Espainiara joateak euskaldunendako duen garrantzia azpimarratu zuen bere hitzaldian. Horren harira, Euskal Herriak Espainian izan beharreko lekua gainean berba egin zuen eta Ibarretxeren plana sakon aztertu zuen aramaioarren aurrean, hura aurrera eramatea nahi dute-eta. Eta Udaltzaren ere berba izan zuten. Era berean, Euskadik hobe-

tzen jarraitu behar duelako eskatzen dute botoa EAJkoek. Oro har, Gipuzkoan 100.000 boto ateratzea da EAJren helburua.

### HAMALAUEN SALAKETAK

Bere aldetik, hAMAlauk etxe etxe bidali ditu Bergarako ekimenaren aldeko botoak. Eta, jakinarazi digute Udalaren kontrako salaketa batzuen idatzia ere bidali dituztela. Hiru gauza salatzen dituzte: egindako eskaerei jaramonik ez dietela egin udaletxetik. Bestetik, Udalak ur eta zabor tasak igotzeko ez duela legeak esaten duen ikerketa ekonomikorik egin, eta neurri bariko igoera ezarri duela. Eta hirugarrenik, urtebetez Iñaki Nafarrate bi soldata kobratzen ibili dela, hirigintzako ordezkaritza hartu eta gero. Gaineratu dute hAMAlauk eskatutako txosten juridikoaren berri izan ostean, EAJkoek itzuli zutela dirua.

## Jende dezente Emakume Astean

Aurreikusitako moduan egin dituzte emakumeen eskubideen aldeko ekimenak Aramaion. Astelehenean zinemaretoan emakume dezente elkartu zen Las Torpedolevel taldearen antzezlan ikusteko. Eta, martitzenean, berriz, Rosa Maria Agudok sorginen gainekoak esan zituen kultura etxean. Gaur, barikua, bingoan jokatuko dute, eta gero afora izango dute. Bestalde, esan beharra dago emakumeen aldeko ekitaldi horietan oso gizonetako gutxiak parte hartzen duela Aramaion.

